

## Euskal AEko industria-produkzioaren indizea. 2025eko abendua

### *Nabarmentzekoak*

#### 2025. urtea

**Urteko bilakaera:** industria-sektore osoan, industria-produkzioa % 0,6 murriztu da 2025. urtean.

**Lurralde Historikoen arabera:** Araban % 4,5 murriztu da; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 0,7 eta % 0,3 handitu da, hurrenez hurren.

**Ondasunen helburu ekonomikoa:** *Energiak* eta *Bitarteko Ondasunek* urteko % 3,3ko eta % 1,9ko jaitsierak metatu dituzte, hurrenez hurren.

#### 2025eko abendua

**Urte arteko bilakaera:** Euskal AEn produkzioa ez da aldatu (% 0,0) 2024ko abenduaren aldean.

**Hilabete arteko bilakaera:** industria-jarduera % 1,0 hazi da 2025eko azaroarekin alderatuta.

**Lurralde Historikoen arabera:** Araban urte artean % 3,4 jaitsi da eta Bizkaian % 1,8. Gipuzkoan, aldiz, produkzioak % 3,4 egin du gora.

**Ondasunen helburu ekonomikoa:** ekipamenduko ondasunek % 3,6ko bilakaera positiboa izan dute.

## Azterketa estatistikoa

### 2025. urtea

2025. urte osoan, produkzioaren jaitsiera metatua industria-sektore osoan % 0,6koa izan da. Bilakaera negatibo hori bereziki *Energiaren* eta *Bitarteko Ondasunen* portaeraren ondorio da, urte osoan % 3,3ko eta % 1,9ko jaitsiera metatuak izan baitituzte, hurrenez hurren.

Kontsumo-ondasunetan, 2025ean metatutako produkzioa aurreko urtekoa baino % 0,9 handiagoa izan da, *Kontsumo iraunkorreko ondasunek* (% 1,3ko igoera) eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek* (% 0,8ko igoera) portaera positiboa izan dutelako.

*Ekipamenduko ondasunen* produkzioari dagokionez, % 1,3ko hazkunde metatua izan da.


Lurralde historikoei dagokionez, Arabak bilakaera negatiboa izan du, metatutako produkzioa % 4,5 murriztu baita. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, urteko tasa metatu positiboak eman dira: % 0,7 eta % 0,3, hurrenez hurren.

### 2025eko abendua

Eustaten datuen arabera, 2025eko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoan mantendu da (% 0,0), lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin (2025eko azaroa) alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 1,0 handitu da, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

### Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2025eko abenduan, eta produkzioa % 2,7 murriztu da sektore osoa kontuan hartuta. Murrizketa hori *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* (% 9,1 jaitsi da horien produkzioa) eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* (% 1,1 murriztu da, 2024ko abenduaren aldean) bilakaerek eragin dute.

*Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeke tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

*Bitarteko ondasunetan* (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 0,9 murriztu da urte artean.

2025eko abenduan *Energiaren* produkzioa aurreko urteko hilabete berekoa baino % 5,9 txikiagoa izan da. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

*Ekipamenduko ondasunen* produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira), ordea, % 3,6 handitu da aurreko urteko abenduaren aldean.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2025

|                                                           | Egutegi eraginak zuzendutako datuak |              | Datu desestacionalizatuak |
|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------|--------------|---------------------------|
|                                                           | m / m-12                            | Am / A(m-12) | m / m-1                   |
| <b>Indize orokorra</b>                                    |                                     |              |                           |
| Euskal AE                                                 | 0,0                                 | -0,6         | 1,0                       |
| Araba/Álava                                               | -3,4                                | -4,5         | 5,0                       |
| Bizkaia                                                   | -1,8                                | 0,3          | -1,0                      |
| Gipuzkoa                                                  | 3,4                                 | 0,7          | 1,1                       |
| <b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b> |                                     |              |                           |
| Kontsumo-ondasunak                                        | -2,7                                | 0,9          | -0,2                      |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                              | -9,1                                | 1,3          | -5,9                      |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                           | -1,1                                | 0,8          | 1,3                       |
| Ekipa-ondasunak                                           | 3,6                                 | 1,3          | 1,8                       |
| Bitarteko ondasunak                                       | -0,9                                | -1,9         | 1,5                       |
| Energia                                                   | -5,9                                | -3,3         | -1,3                      |

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtaririetatik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2026ko Otsailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko abenduan Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban (% 3,4 murriztu da) eta Bizkaian (% 1,8 murriztu da). Gipuzkoan, aldiz, produkzioak urte artean % 3,4 egin du gora.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko abenduan, urte artean, produkzioaren igoera handiena hauek izan dute: *Materiala eta tresna elektrikoak* (% 5,7), eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 5,5). Beste muturrean, *Zura, papera eta arte grafikoak* sektoreak urte arteko % 8,8ko murrizketa izan du eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* sektoreak % 6,8koa.

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abendua 2025

|                                      | m / m-12 |
|--------------------------------------|----------|
| Elikadura ind., edariak, tabakoa     | -4.6     |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak | -8.8     |
| Kautxua eta plastikoak               | -4.3     |
| Metalurgia eta produktu metalikoak   | 5.5      |
| Materiala eta tresna elektrikoak     | 5.7      |
| Makineria eta tresneria              | -0.8     |
| Garralo-materiala                    | -0.6     |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | -6.8     |

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2026ko Otsailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

## INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **84,87**ko estaldurarekin kalkulatu da.

## Informazio gehiago:

- Taula estatistikoak: [\[ikus\]](#)
- Datu-bankua: [\[ikus\]](#)
- Grafikoak eta bistaratzeak: [\[ikus\]](#)
- Metodologia: [\[ikus\]](#)
- Definizioak: [\[ikus\]](#)
- Kodeak eta nomenklaturak: [\[ikus\]](#)
- Egutegia: [\[ikus\]](#)
- Prentsa oharrak: [\[ikus\]](#)